



### “Egunsenti berri baten bila”

Zain taldea Berrizen (Bizkaia) antolatu zuten 2005-2006ko neguan. Taldean ez da eman inolako taldekide aldaketarik. Unai, Asier, Froufe eta Alberto lagunak dira eta Zain taldearekin bikain pasatzen dute. Euren sarrera musikaren eszenan izenburu luzeegia duen maketa betekin egin zuten 2008an: “...eta galdetzen nahiz nora goazen, beste mundu bat egin nahi nuke, aitzakirik gabeko gizarte arruntez...”. Aipatu maketarekin Gaztea XIX maketa lehiaketa irabaziko dute 2010ean. Urte berean bi argitarapen izango dituzte. Alde batetik, “Jaia” abestia sartuko dute VS The World (vol. 4) disko bilduman eta dut, bestetik, lehen diskoa etorriko da: “XXI. mendeko piratak” (Baga-Biga). Gaztea iratiaren maketa irabazteak ekarriko dien onura, besteak beste, 2010eko BBK Live jaialdi erraldoian jotzea izango da. Jo ondoren vip gunean jipoiu egingo dituzte eta antolatzaileekin haserre bizian geratuko dira. Zuzeneko gahiago etorriko dira eta kolpeetatik altxatuko dira, noski. 2012ko irailean Iban Gorriti musikariari lagunduko diote “Toubkal” proiektua aurrera ateratzen (euren arteko harremana oso estua da eta beti daude elkarri eskua botatzeko prest), eta Zain taldeak The Unfinished Sympathy taldearen “The loveless curse” abestia sartuko du “Nigth of fun” disko bilduman. Unai eta Asierrek disko bilduma horretan kantu banarekin euren beste ekarpen bat egingo dute.

Zain taldearen disko berria 2013ko martxoa eta apirilean grabatu eta nahastu da Berrizko Lorentzo Records estudioan Aitor Ariño teknikariarekin. Juan “Sangre-k” (Governors) ahotsa sartu du “Goitibehera” abestian. “Moden korrante iluna” abestian narratzaile lanak egin ditu Mikel “Keixetak” eta, baita hainbat hitzetan laguntza eskaini ere taldeari.

Zain taldearen bigarren diskoaren izenburua “Egunsenti berri baten bila” du izenburua. Zain taldearen bigarren disko berriak lau atal indartu ditu bereziki: melodiak, gitarra, rock-popa eta hitzen ikuspuntua. Aldiz, orokorrean punk doinuen presentzia gutxitu egin da kantuetan zehar, nahiz eta zertzelada trinkoak dauden (“Betiko handikeria” kasu). Zain taldeak, hala eta guztiz ere, poparen melodiak eta rockaren abiadura era goxoan uztartzeko izugarritzko abilezia du. Abestiak lasaitasun trebearekin doaz etengabe. Maitasuna jarrita doinu eta hitzen indarrean. Musika disfrutatzeaz gain, kulturaren eta bizitzaren suntsiketari kritika zorrotza egiten zaio.

## 1.- Zain taldearen “Egunsenti berri baten bila” eta Durrutiaren “Denok daramagu mundu berri bat bihotzean” badute antzekotasun bat. Egunsentia mundua izan daiteke?

Mundua, gizartea, bizitza, helburu bat... bizitzen ikasten jarraitzeko aitzakia bat. Herri urratu honen ikuspuntua aldatzeko, eta ideia, harreman edota sistema berriei beldurra kenduko dien egunsenti berri bat.

Disko honetan entzunlearendako eta, batez ere, guretzako kantuekin “autolaguntza” moduko ariketa bat egitea izan da helburua. Etorkizunean, norberaren errepide horretan, hanka kanpoan jartzan dugun bakoitzean, kantu batek edo besteak emango digun indarra edo aholkua.

## 2.- Zain taldearen bigarren diskoak keinu asko egiten dizkio lehenari? Melodiak itsaskorrek eta abiadura aldakorretan dago oinarria?

Bai, estilo aldetik berdinean jarraitzen dugu, melodiaren goxotasuna eta bizkortasunaren indarra gustatzen zaigu oraindik ere. Hala ere, gure ikuspuntutik ikusten ditugu alde ezberdinak. Adibidez, konposatzeko garaian gitarra pisu gehiago izan dute heuren melodietan, eta horrek besteoi eremu ezberdinak aurkitzera behartu digu, hasierako ideia eroso horiei beste ausardia puntu bat eskatuz. Agian detalle txikiak lehen entzundietan, baina osotasunean eragina dutenak.

## 3.- Zain taldea disko berriarekin gaztetu egin da? Jarrerak ba al du adinik?

Ez dut uste... Zaila da gaztetzea zahartzen goazela baina ez zen izango adierazle txarra. Konposatzeko garaian heldutu garela uested dut, teknologia berriei esker errazagoa da maketatxoak egitea eta Zain musika taldean zuzenean garen lau mutilez aparte, inguruko lagun berriak bildu zaizkigu.

“XXI. Mendeko piratak” diskoak “Egunsenti berri baten bila” honetan eragin zuzena izan du eta disko honekin ikasi duguna, posible bada, hurrengo baten ikusi beharko dugu denok.

Unai Uribe: ahotsa, gitarra

Asier Cosme: gitarra eta koroak

Joshua Froufe: bateria eta koroak

Alberto Sanchez: baxua eta koroak

ritxi aizpuru (2013ko maiatzaren 9)

elkarrizketak [ritxi@baga-biga.com](mailto:ritxi@baga-biga.com) 690 704 255